

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Apirilaren 27ko 172/2020, ebazpenaren laburpena, etxeko konpostajeagatiko laguntzen deialdia

BDNS(Identif.): 504388

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, testu osoa Diru-Laguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

Lehenengoa. Onuradunak

Diru-laguntzen onuradunak izango dira Barrundiako Udalak hondakin solidoak biltzeagatiko udal-tasari dagokion ordainagiriaren titular guztiak.

Bigarrena. Diru-laguntza ematearen xedea

Etxeko konpostajeagatiko diru-laguntzak jasotzeko baldintzak arautzea, hondakinak behar bezala kudeatzeko, materia organikoa bereiztea eta konpostaje bihurtzea praktikan jarritz.

Hirugarrena. Oinarri araupetzaileak

Udalbatzak, 2019ko abenduaren 27an egindako batzarrean, etxeko konpostajeagatiko diru-laguntzak emateko oinarriak onartu zituen.

Diru laguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Barrundiako Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: www.barrundia.eus.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kopuru osoa: 4.000,00 euro.

Aurrekontu partida: 1621.481.014

Bosgarrena. Eskariak aurkezteko epea

Dokumentazioa aurkezteko epea 2020ko ekainaren 15era arte izango da.

Ozaeta, 2020ko apirilaren 29a

Alkate-lehendakaria
IGOR MEDINA ISASA